


1920ko hamarkada (ez hain) zoriontsua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1920. Konstituzioaren Heme-retzigarren Zuzenketa onartu eta, horrenbestez, emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu zuten. Hala, 1920ko urte zoriontsu eta eroak ondo hasi ziren, eta bereziki pozgarriak izango ziren emakumeentzat. Gordon A. Craig (1913-2005) historialariaren hitzetan: "Herrialde guztietan, Lehen Mundu Gerrak ortodoxia eta aginte guztiak ahuldu zituen eta, amaitu zenean, ez gobernuak, ez elizak, ez eskolak eta ez familiak ez zuten garai bateko indarra gizakien bizitzak arautzeko (...). Bereziki emakumei egin zien horrek mesede. (...) Toki publikoetan bakarrik azaltzeko, alkohola edo tabakoa kontsumitzeko eta ezkondu aurretik sexu harremanak izateko tabuek indarra galdu zuten. Emakumeek gizartearen tiraniaren menpe egoteari utzi zioten". Ilea eta gonak moztu zituzten, kortseak gerri zabaleko soineko erosoek ordezkatu zituzten, galtzak ere janzten hasi ziren, baita zigarroak erre eta alkohola edaten ere; eremu publikoa hartu zuten, lotsak galduta; ekonomiaren loraldiak eta kontsumo ahalmenak Botere haiekiko independentzia areagotu zuen; sexu-askatasunean ere aurrera egin zuten, antisorgailu berriak lagun... Horixe zen *flapperra*, hamarkada zoriontsuko emakume berriaren estereotipoa.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa izan zen. Gerora garrantzitsuak izango ziren pausoak eman ziren, jorratu



EZKERREAN, ILUSIOA: 1920KO HAMARKADAKO EMAKUME EMANTZIPATU ZORIONTSUAK. ESKUINEAN, ERREALITEA: DOROTHEA LANGE-REN ARGAZKI EZAGUNA, HAMARKADA AMAIERAKO KRISIAREN SINBOLO.



G. BAIN COLLECTION / OAKLAND MUSEUM

ren bideak ireki, baina hamarkada horretan munduko emakume gutxi dantzatu zuten charlestona.

AEBetan bertan emakume guztiek ezin zuten botoa eman; beltzek –emakume zein gizon– 1967an lortuko zuten bozkatzeko eskubidea. Garai hartako irudi publiko indartsuenetakoa, Josephine Baker, estatu-batuarra eta beltza zen, eta Europan, Parisen egin zuen AEBetan ukatu zioten bidea.

Gainera, AEBetako loraldi ekonomikorik ez zegoen gainerako herrialdeetan. Galtzaileak galtzaile, gerraren irabazle gehienek ere asko galdu zuten gatazkan, eta zulotik ateratzeko urteak izan ziren haiek. Gerran parte hartu ez zuten zen-

bait herrialdeetako emakumeentzat ere ez zen pagotxa izan; Espainian, esaterako, Primo de Riveraren diktadura jasan behar izan zuten 1923tik aurrera. AEBak izan ziren benetako irabazle ekonomikoak, baina han ere elite murrizt batek soilik jantzi zitzaizkeen Coco Chanelen arropa askatzaileak. Eta 1929ko krisian gerrak puztutako burbuila hura lehertu egin zen. Horrenbestez, "emakume berriak" inor gutxi ordezkatu zuen.

Orain, beste 20ko hamarkada baten atarian, ikusteko dago datozen urteek argazki alai mordo bat utziko diguten ala benetan "emakumeek gizartearen tiraniaren menpe egoteari" utziko dioten. ●



Mantra, funtzionarioa eta mandarina

XVI. mendean bidaiari portugesak *mandarim* esaten hasi zitzaizkien txinatar inperioko funtzionarioei eta, orduz geroztik, administrazioko ofizial horiek erabiltzen zuten hizkuntzari ere hala esaten zaio. Hitza sanskritotik dator, *mantrinah* (aholkulari, ministro) hitzetik, hain zuzen. Eta *mantrinah* sanskritozko beste hitz askoz ezagunago

batetik dator: *mantrah* (aholku, otoitz, himno).

Laranjak bezalaxe, mandarinak ere Txinan du jatorria. Eta mendebaldean laranjen ahizpa txikiak izendatzeko burokrata inperialen izen berbera erabiltzen hasi ziren arrazoi soil bat medio: funtzionarioen jantziak eta fruituak kolore berekoak ziren. ●